



Hainbat informazio-panel eta tamaina errealako bi etxe familia haiei bizi giroa eta bizimoda erakusten digute. Bertako bizilagunek jatorri zeltiberikoa eta Europa erdialdekoa zuten.

Erakinen kanpoaldetik seinalatutako ibilbide bat egiteko aukera dago. Beran herrak zeuzkan harresitako babesen berreraikuntza ikus daiteke, baita Lautada osoko eta Gasteizko mendien ikuspegi panoramikoa duen muinorata igo ere.

**Iradokizunak.** Henaioko Kastroa milaka urteko monumentuen ibilbide zabal baten barruan koka daiteke, izan ere, Lautadan barrena hainbat aurrehistorikoko populamendu topa dezakegu, eta oso egoera onean, esaterako; Sorginetxe trikuharria (Arrizalan) eta Aizkomentri trikuharria (Eglatzen), edo Legaitreko parke megalitikoa.



## HENAIOKO KASTRO ZELTIARRA

**Informazio orokorra.** Henaioko Kastroaren Interpretazio Zentroa Alegria-Dulantzitik oso gertu dagoen izen bereko muinoan kokaturik dago. Zonaldea Brontze Aroko amaieran eta Burdin Aroko lehenengo aldetan sortutako giza-kokalekua da.


# HENAIOKO

KASTRO ZELTIARRA



## HENAIOKO ARKEOLOGIA INTERPRETATIO ZENTROA

Kastroak bi etheen erreproduzioa dauka, indusketako Burni Arokoen antzekoak. Oin zirkularra dute, 6 metroko diametroa eta 4,5 metroko altuera. Egitura zutoinez egin dago, eta itxitura otzaragintza makilez osatua eta mortairuz finkatua dago. Horrez gain, harresiaren bi tarte-une eraiki dira, bakoitza 8 metrokoa.



1969a eta 1970a artean indusketa arkeologikoa egin zen bertan, eta honek populamenduaren 800 urteko fase desberdinak azalera zituen.

Lehenengo fasean hainbat harrizko hormatxo antzeman ziren, laborantza lanen ondorioz, oso hondaturik zeudenak. Hurrengo fasean, etxebizitzaren oin bat azalera zuten, oin borobileko egitura mantentzen zuena. Maila honen azpian beste bat zegoen, muinoaren lehengo giza asentamenduari zegokiona. Lehenengo eraikinetako egurrezko zutoinak ezartzeko zuloak azaldu ziren bertan. Fase desberdinetako datak honakoak ziren; K.a. XI- X mendeak (Amaierako Brontzea) eta azken etapak K.a. IV- III mendeak (Burdin Aroaren amaiera)

Muinoaren okupazioa hiru aldeetara dituen malden ondorioa izan daiteke. Hori gutxi balitz, defentsa artifizial batekin sendotu zuten babesak, honek terrazak eta hormak zituena. Hauek sendoagoak ziren hegoaldean, bertan defentsa naturalik ez baitzegoen. Altura horretatik pasabide naturala kontrolatzen zen, ekialde-mendebalde norabidea zuena, baita Gasteizko mendietatik, hots, hegoaldetik, hurbiltzen zen jendea.

## BISITA GIDATUEN ORDUTEGIA:



Informazio gehiago, talde-bisitak eta erreserbak :  
ARABAKO LAUTADA ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA  
945 302 931